

Egia

Aitziber Gurutzeaga (finoa.: 431228)

datorren astetik aurre-ra, Kriseilu-Bagerak abizenak euskal grafiaz jartzeko kanpainari ekingo dio. Horretarako Kriseiluko kideak Kultur Etxean izango dira ostegunero, 19.00etatik aurrera. Aurkeztu behar diren agiriak honako hauek dira: NAN-en fotokopia eta, abizenaren erabilera ziurtatuz, hiru dokumentu (gutunak, txartelak...). Euskaltzaindiaren agiria lortzeko 500 pezeta ordaindu behar dira, eta familia liburuaren fotokopia ere behar da (seme-alabak dituztenen kasuan).

Hitano Ikastaroa

Bestalde, Hitano ikastaroa ere antolatu du euskaltzale elkarteak. Bi larunbatetan egingo da, hil honen 25ean eta maiatzaren 9an, goizeko 10.00etatik 13.00etara Egiako euskaltegian. Izena emateko 431228 telefono zenbakira deitu behar da lehenbailehen. Talde mugatua izango da.

Merkataritza kanpaina

Azkenik, merkataritza kanpaina ere abian da. Apirilean eta maiatzean, 30 lagunek postontzian jasotzen den

Aldapa kalean trafiko arazoak

Aldapa kalean trafiko arazoak daude. Abioiak dituen etxetik behera, Loiola aldera doan maldan, bi norabideko kalea bakarrekoa izatea eskatu dute bizilagunek. Udaleko Trafiko sailak hori ezinezkoa dela adierazi du, areka (ura jaisteko bidea) jarri arte gutxienez. Aldapa kaleko bizilagunek bi urte daramatzate istilu hauekin eta oraindik ez dute ezer lortu.

Abizenak euskal grafian jartzeko kanpaina

Kriseilu-Bagerak hamaika ekintza antolatu ditu hilabeteotarako



Abizenak euskal grafiaz idatzi nahi duen orok asteazkenetan goizeko 11.00etatik 12.00etara eta ostegunetan 19.00etatik aurrera izango du aukera Egiako kultur etxean.

publizitatearen kontrola eramango dute. Erdara soilik erabiltzen dutenei eskutitza bidaltzen zaie euskaraz egin dezaten eskatuz, eta euskaraz

edo elebitan egiten dutenei, beste gutun bat bidaltzen zaie, horrela jarrai dezaten esanez.

Mintzakoadrilak

Bestalde, Kriseilu-Bagerak Mintzakoadrilak osatzeko asmoa du auzoan. Ekimen honen bitartez euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak koadrila berean bilduko dira euskaraz hitz egiteko asmoarekin. Mintzakoadrilak berehala antolatzeko asmoa zegoen arren, urriatik aurrera jarriko dira martxan.

Altza

Larraitz Garmendia (finoa.: 391267)

Sexualitateari buruzko kartel lehiaketa

Sexualitateari buruzko hirugarren kartel lehiaketa martxan jarri dute Gaztelekuko arduradunek. 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteek parte har dezakete, eta «Gazteak eta sexualitatea» lelopean landu beharko dute beraien lana. Teknika librea da, beti ere kartelak neurri estandarreko kartulinetan aurkeztuz. Epaimahaia auzoko gazteek, sexologoek eta udal ordezkariak osatuko dute. Sariak 12.000 pezetatik 20.000ra bitartekoak izango dira. Kartelak aurkezteko epea apirilaren 28tik maiatzaren 12ra izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Altzako gaztelekura edota kultur etxera deitu.

Itsasuntzi maketak

Maiatzaren 4ra arte, Manuel Sanchez altzatarraren «Itsasuntzi maketak» izeneko erakusketa ikus daiteke kultur etxean. Auzotar honek duela hogeitau urtetik hona egin dituen itsasuntzi maketak ikusgai daude. Erakusketan maketak egiteko eman behar izan dituen urratsak ikus daitezke.

«Seribos» literatur lanen bilduma kalean

«Seribos» izeneko literatur lanen bilduma aurkeztu berri da kultur etxeko liburutegian. Oraingoan aldizkari itxura duen 80 bat orriko bilduma kaleratu da. Prezioa 100 pezeta da eta kultur etxean bertan eskura daiteke.